

Vatikanon aurkitu ditu. Non dago XVI. mendean Salamancako Unibertsitatean logika nominalistaren irakaskuntza abiatu zuen Pedro Donibane Garazikoaren *Expositio*-a? Hiru nafar bakarrik aipatzeko. Eta zenbat gehiago dago Valladolideko, Salamancako artziboetan? Beltrán de Heredia edo Malaxechevarria irakurri, eta hotzikara ematen du.

Baina hori ere plan bat eta ekipo bat eskatzen duen egitekoa izango litzateke. Hain zuzen, Elias Amezagak egin duen lan pozgarriak eskatzen duen jarraipena. ■ *Joxe Azurmendi*.

Damua eta bonbak

«Jauna, jauna esaten duen oro ez da zeruetako erreinuan sartuko». Ezta ere «damutu naiz», «biolentziari uko egiten diot» aldarrikatzen duen orok ez du besterik gabe gizartean sartzerik izango. Obrak behar dira, obrak. Hauek erakusten bait dute damuaren egiazkotasuna. Gainera, zertan bekatu egin, hartan behar da damua erakutsi. Hauxe da CPko José Segura Sanfeliú katalanak Espainiako Kongresuko mahaian aurkeztu duena, zera proposatzerakoan: ETAk jarritako lehergailuak desaktibatzen goardiazibilek barik ETako «damutuek» edo gizartean berrintegratzea eskatu dutenek joan beharko luketela. Zergatik eta zertarako? Bistan da: Horretarako abildadeak erakutsiak dituztelako eta goardiazibilen bizitzak salbatzeagatik ez, edo horregatik bakarrik ez, baizik —eta batez ere— beren damua zintzoa eta osoa dela erakusteko. Obragabeko fedea hutsa da, izan ere. ■ *Joan Larrinaga*.

300.000 lagun en lballdi nagusia

Urriaren 20an Bilbon egin zen estradizioen aurkako manifestaldia ikusgarria izan zen; aspaldiko urteotan Euskal Herrian egin den handienatzat jo dute gehienek. Zenbakitan bakoitzak bota ditu bereak: 20 mila, 30 mila, 60 mila, ehundaka mila...

Bigarren zifrarekin geldituko gara: 30.000 lagun. Handia kopurua? Txikia? Nork bere baikortasunaren ala ezezkortasunaren arabera balioztatu du. Nire ustez, Bilboko manifestaldiaren balioa ez zegoen bi ordu t'erditan kalean bere haserreak, eskabi-deak eta esperantzak ipini zituen jendetza harengan soilik; haren atzetik zeuden 300.000 sinatzaileek eman zioten benetako indarra Bilboko manifestaldiari.

Badakit, 300.000 horiek denak ez zeudela seguruenik ados Bilboko kaleetan jaulki eta jaurti ziren oihu, garrasi eta kantuekin. Baina funtsean, oihu batek bateratzen zituen denak: Estradiziorik ez! Horregatik bidezkoa iruditzen zait 30.000 lagun haiek 10ekin biderkatzea; eta 300.000ko kopurua ateratzen zait. Horregatik manifestaldi ezberdina izan zen hura, nahiz eta itxuraz beste hainbat bezalakoa iduri, horietakotan behin baino gehiagotan eskuhartu dugunontzat.

Oraingo honetan ezingo dugu hainbeste sinaduraren biltzeak eta horren inguruan indarberritu den herri-jarkierazko mugimenduak erakusten duten fenomenoak sakonetik analisatu. Hala ere, gogoeta txiki bat utzi nahi dut orrialde hauetan, Bilboko «Ibilaldi nagusia»ri buruzkoa.

Ibilalditan trebatua dago Euskal Herria, «Askatasunaren Ibilaldia» handi hartatik hasita. Geroztik, Gipuzkoako «Kilometroak», «Nafarroa oinez», «Araba euskaraz», Iparraldeko «Herri urratsez», Bizkaiko «Ibilaldia» urterokoa, eta Euskal Herriko «Korrika», beste hainbaten artean; orain, berriz, «Ibilaldi nagusia»...

... Edo «La gran marcha», esango litzateke, urrutiko beste hura gogoratzu. Batzurentzat gogozkoak izango dira haren oihartzun historikoak; beste batzurentzat gorrotzkoak, agian. Edonorentzat irudi bat ematen digu, Herri baten jarkiera-mugimendu luzea ulertzeko.

Bi hilabetetan zehar sinadurak biltzen egindako lanaren eta horren inguruan sorturiko mobilizazioaren burutzea besterik ez zen izan batzurentzat Bilboko manifestaldia. Nire ustez, bidegintza luze baten hasiera izan zen batez ere: Ibilaldi nagusia, La gran marcha. Orain hasi, edo berritu besterik ez da egin Herri honen askapenerako ibilaldi luzea. Zenbait urtetan banaturik —sakabanaturik— eta bidean erdi-galdurik ibili ondoren, berrir aspaldidaniko bide hura aurkitu dugula dirudi, herriaren basetik hasita, eta hainbat indar herritar bide horretara biltzea lortu dela. Azken urteotako hainbat euskaldunen liluragabeteak eta etsipenak eta beste askoren ametsak bide berberera eraman gaitu, Herri honen etsaien mila eratako erasoek eraginda: oraingoan estradizioek.

Baina hor daude beste mila zio eta bultzagarri, jarkierazko

mugimendu herritarrean organizatzera eta koordinatzera eram dezaketenak Herri hau: atxiloketa basatiak, torturak, auto-determinatzeko eta beste hainbat eskubide gizatar, politiko eta nazionalen ukatzeak, euskararen menperakuntza etengabeak eta aldian aldiko erasoak. Guztiak dira Herri eta gizarte honek bere askatasun-bidean gainditu behar dituen oztopok.

Ibilaldi luze horren hasiera berri bat izan zen Bilboko ibilaldi nagusia: 30.000 manifestatzaile kalean... 300.000 sinatzaile atzetik bultzaka... 3.000.000 euskaldun bidegintza luzerako. ■ *Paulo Agirrebaltzategi*.

«La Tarde de Euskal-Herria» egunkaria hil

Zaratarik gabe jaio zen, irailaren 13an, eta halaxe hil da, zaratarik batere gabe. Imposak ateratzen zuen, *La Voz de Euskadi*-ren enpresa berak.

La Voz inoiz desagertzen bada, pena handia hartuko dut, bai horixe. Ez, aldiz, *La Tarde* hil denean. Nola hori?, galde dezake norbaitek. Esplikaeraza oso: *La Tarde*-ren atzean egitasmu serioerik zegoenik ez zait iruditzen. Inprobisaziotik asko zuela-koan nago. Heldu eta umotu gabeko projektua zen niretzat. «Globo sonda» bat zirudien. Funtzionatu egiten zuela? Oso ondo. Ezetz? Bost axola. *La Voz*-en larrialdiak ezagututa, honen alternatiba posible gisa pentsatua ematen zuen, eta ez bere horretan pentsatua eta aztertua. *La Tarde*, nire ustetan, ez da egiazko apustu serioa izan sekula. Airean egindako eupada bat zen. Txilibituak soinuak egin ez duenez, itxi egiten da arratsaldekoa, eta kitto. Ez da ezer pasa.

Horixe da egia: ez da ezer pasa. Ez jaiotzean, eta ez hiltzean. *La Tarde*, produktu informatibo bezala, ez zen beste mundukoa. Formula arinegia, hutsegia. Eskasa zen. Bi aldiz pentsatu behar zen haren truke 40 pezeta eman aurretik. Garestiegi dago bizimodua luxu horietarako. ■ *Joan Alzibar*.

«Antiterrorismo militante»

«Grupo 16» delakoak antolaturiko «Violencia política y terrorismo» izenez ihardunaldi batzu ospatu dira Madrilen urria-